

—LEZO— IZENARI BURUZKO ZENBAIT DATU ETA BURUTAZIO

Betidanik esan da, eta iadanik topikoa bihurturik dago, Lezo izena bere fundatzailea izan zen Guillermo Lazonen abizenetik datorrela. Eta hauxe esateko danok lezoar semea zen Lope martinez Isastik, 1625ean idatzitako «Compendio Historial de Guipúzcoa» izeneko liburua jotzen dute, non eta IV. tomoko V. kapituluaren hasiera aldean honela esaten bait du:

La Universidad de Lezo es muy antigua y nombrada de 85 vecinos. Está en un sitio apacible, algo alto, de buenas vistas, cerca del brazo de mar que sube el bocal del Pasage a un lado de la sierra de Jaizquibel. Hizo memoria de ella el Señor Rey Don Alonso el nono en el privilegio, que dió a la villa de Fuenterrabía el año 1203 diciendo, que le daba por vecino a Guillermo de Lazón y sus compañeros: y por tradición se sabe, que este Guillermo de Lazón fue dueño y señor de la casa solariega de Lezo-andia, de que tomó nombre el pueblo (...). El apellido de Lazun todavía se conserva en el lugar de Pasage y villa de San Sebastián en los que descenden de la referida casa».

Eta paragrafo soil hau izan da urte luzeetan eta da gaur egun oraindik, holako baieztapena egiteko orduan argudiatzen frogarik haundiena, —eta bakarra erantsiko nuke nik—.

Behin gai honi buruz hitzegiten ari ginela, On Joxe Luis Aperribai, herriko apaizak, aipatu zidan honen gainean zuen iritzia. Beraren ustez, Lezo hitza ez omen dator Guillermo Lazonen abizenetik, bailaran ezponda, penditza,... adierazteko erabiltzen den LEZOIA hitz zaharretik baizik. Eta nik, nire buruko labean ondo irekin ondoren, On Joxe Luisi ez zaiola arrazoirik falta sinisterra ailegatu naiz.

Lezo hori bait da, Jaizkibeleetik badia edo portu alderantz jeisten den lezoi haundia, eta ondotxo dakigu danok zer nolako irizpide toponimikoak zerabilzkiten gure arbasoek leku izenak sortzeko orduan. Eta irizpide hauei jarraituz, lezoia zena LEZO(I) bihurtu zen, Pasaiari gertatu zitzaion bezalaxe, «Pasage» edo itsaspausua zena PASAJES edo PASAIA bihurtu zenean.

Seguru aski, hasiera batean LEZO(I) baserri edo etxe baten izena izango zen bakar bakarrik, agian LEZO-ANDIA izeneko bera. Bere nagusiek, Euskal Herri osoan ohitura izan den bezala, bertako izena hartuko zuten abizen moduan, eta horrela sortuko zen XIII. mendeko Lazon-eko Guillermo famatua. Baina puntu honetara ailegaturik, kezka berri sortzen zaigu: Zergatik «de Lazón» eta ez de Lezo(i)? Gaur egun bailara osoan, oraindik erabiltzen da erdaraz hitzegiterakoan LEZON edo LAZON hitza, holako ezponda

edo penditza azaltzeko. Eta nik pentsatzen dudanez, euskarazko lezoia hitza erderazko «lezon» hitzaren euskal bertsioa izango da, kamioa «camion»-ena, baloia «balón»-ena eta kainoia «cañon»-ena diren bezalaxe. Berdin berdina.

Eta zoritxarrez danok dakigu baita ere zer nolako garrantzia eman diogun euskaldunok erdarari bai orain eta bai beti. Ematen bait du zeredozer izateko bitzta honetan erdararen esanetara makurtu beharra daukagula. Eta noblea edo aitonsemea zen eta garaiko agintarien artean horren ondo ikusirik zegoen Gillermoni gauza bera gertatuko zitzaion bere etxeko izenaren erderazko bertsioa hartu zuenean abizen moduan: Guillermo de Lazón, Lazon-eko Guillermo.

Geroxeago, etxe izena zena —eta danok dakigu zer zen euskal etxe bat garai haietan: eraikuntza eta lur hondasunak— Guillermo de Lazon-en bitartez eremu zabalago baten izatera pasatu zen, eta azkenean Guillermo de Lazon-en agindupeko zegoen herrixka osoaren izen generikoa izatera.

Beraz, nire ustez, izen toponimikoa ez litzateke Gillermoren abizenetik etorriko —Isastiren liburua irakurketa azkar eta desegoki batetik atera daiteken bezala—, baizik eta alderantziz, lehenengoa izango zen toponimikoa eta gero berareta oinarriturik, sortuko zen hasiera batean etxe izena beranduago herri izena izango zena. Isastirengana berriro itzuliz aurretik aipaturiko testuaren irakurketa lasaiago eta zehatzago gomendatuko nizueke:

«... y por tradición se sabe, que este Guillermo de Lazon fue dueño y señor de la casa solariega de Lezo-andia de que tomó el nombre el pueblo».

Nik hemendik ez bait dut ateratzen, Lazon-etik datorrela herriak daraman izena, Lezo-andia-tik baizik. Eta Giermo de Lazon Lezo-aundiko jauna zenez gero, arras normala da «de Lazon» (erderazko izena erabiliz) izen goitia edo deitura erabiltzea.

Geroztik abizena ugaritu eta zabalduko zen bai bailaran eta bai kanpoan ere. Honela badakigu Isastiren bitartez, bere garaian Lazon edo Lazun abizena oso zabalduta zegoela Pasaiari eta Donostian.

XIII. mendean, erregeak Hondarribiko hiriari Donostiako Forua ematen dienean, Guillermo de Lazonen izena aipatzen da, Lezo-aundiko nagusia zela ohartaraziz.

1590. urtean, Urkiola jeneralaren agindupeko eskudraren partaide zen «Concepción» itsasontziko kapitainak, Joan Martinez de Lazon izena omen zuen. Testuetan azaltzen denez, donostiarra zen.



XVII. mendean, Gibraltarreko itsaspausotik igarotako galeoi baten kapitainak Joan de Lazun izena omen zuen, eta dirudienez donostiarra zen baita ere.

Badirudi urteen poderioz, eta beste abizen askori gertatzen zaien bezala, Lazon abizenak bere aldaketak izan zituela: Lazun, Lezon, Lazun,... eta Iparraldean Lazeu eta Lazu.

Honela badakigu ere, 1506. urtean, Pedro Lezeu gipuzkoarra Guises-eko Dukearen uztakariaren kapitaina izan zela. Eta jakin badakigu baita ere, Don Carlos errege karlistaren idazkaria Lazan leinukoa zela.

Lezo-andiari dagokionez, gaur Markesane dagoen tokian, altxatzen zen, eta hor egon dira bere azken hondamendiak orain dela oso denbora motza arte. Gure Illari berak, ikusi omen zuen oraindik zutik gaztea zen garaietan. Markesane izenak bere loturak izango ditu Lezo-andiko nagusien nobleziarekin, eta zer esanik ez, beherago, kai aldean zegoen Jauregialde izeneko etxearen izenak.

Idazlan hau nolabait bukatzeko, aipatu beharra dago, Belgikako Gand hiritik, E. Van Boeckxsel jaunak esku-titz bana bidali diela Lezoko apaiza eta alkateari bere arbasoa izan zen Carlota de Lazeu-ren berri eskatuz. Aipaturiko jaunak abizen honen jatorriaz aztertu ondoren, bere amona zaharra 1848 eta 1860 artean, Lezon jaioa dela pentsatzera iritsi bait da.

Badakit nire teoria hau, frogarik gabeko zaku ilunean sar daitekeela, baina horregatik bakarrik ere, ezin zaizkio burutaziozko munduari ateak itxi. Eta nire uste apa-lez, On Joxe Luis Aperribaik arrazoia du, Lezo eta lezo-aren arteko balizko senidetasuna aipatzen duenean. Denborak eta ikerlari berriek dute hitza.

Joseba Presentación Barandiaran